

# Erriberriko Antzerki Jaialdia

uztailaren 16tik  
abuztuaren 1era

[www.FestivalTeatroOlite.es](http://www.FestivalTeatroOlite.es)

#AntzerkiaErriberri2021 / #KulturaArnastu





# Sarreraren salmenta

# Ekainaren 1etik aurrera

SALMENTA ONLINE

www.FestivalTeatroOlite.es | www.baluarte.com

SALMENTA LEIHATILAN

## BALUARTE

T. 948 066 060

- Ekainaren 1etik uztailaren 2ra, 11:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00, astelehenetik larunbatera.
- Uztailaren 15etik uztailaren 31ra, 11:00 - 14:00, astelehenetik larunbatera. Igandeak itxita.

## ERRIBERRI

T. 948 741 703

- Ekainaren 1etik, asteburuetan eta jaialdian zehar, Turismo Bulegoan / Ardoaren Museoan (Teobaldoen plaza 4, Erriberrri).
- Ostiraletan, 17:00 - 19:00
- Larunbat eta igandeetan, 12:00 - 14:00
- Emankizunen egunetan, 19:00 - 22:00

## CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA

T. 948 755 969

Testu Poetikoaren Zikloa (prezio bakarra 3 €) eta ¡Por todos los dioses! (prezio bakarra 6 €).

Sarrerak ekainaren 1etik aurrera Centro Cultural Tafalla Kulturguneko leihatilan eta online baino ez dira saltzen, [https://es.patronbase.com/\\_Tafalla/Productions](https://es.patronbase.com/_Tafalla/Productions) web orrian.

## ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA

T. 948 740 772

Testu Poetikoaren Zikloa eta *Conservando memoria* (prezio bakarra 3 €). Sarrerak uztailaren 5etik aurrera 012 telefonoan eta Erriberriko Kultur Etxean emankizunaren egunetan baino ez dira saltzen.

## BEIREKO EZPELETA JAUREGIA

Testu Poetikoaren Zikloa (sarrera librea edukiera bete arte).

ERRIBERRI 2021eko PREZIOAK	Online eta leihatilan ekainaren 1etik aurrera	Gazte Txartela online eta leihatilan ekainaren 1etik aurrera
La Cava	18 €	10 €
Abonamendu osoa La Cava (14 emanaldi)	190 €	100 €
3 lanerako abonamendua La Cava (edozein egunetan aukeratzeko)	50 €	25 €

**MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN PERTSONAK** Erriberriko Antzerki Jaialdian, emanaldi bakoitzerako lau leku daude gordeta mugikortasun murriztua dutenentzat. Sarrera horiek erosi nahi dituztenek Baluarteko eta Erriberriko txarteldegietan edo 948 066 060 telefono zenbakiaren bidez egin beharko dute (bi sarrera gehienez erosketa bakoitzean). Hartara, Antzerki Jaialdiak ezin die bermatu beren beharretarako kokaleku egokia izatea, gordetako leku horietarako ez den sarrera erosten duten mugikortasun murriztuko pertsonen. Edonola ere, antolatzaileak saiaturko dira ikus-entzule horiek kokatzen esparriak eskaintzen dituen aukeren barnean.

Emanaldien datuak, eguna eta ordua web gunean baieztatu itzazu. Bertan informazio eguneratua egon daiteke Covid-19ak eragindako neurriengatik.

Informazio gehiago [www.FestivalTeatroOlite.es](http://www.FestivalTeatroOlite.es)

# Erriberriko Antzerki Jaialdiak zaintzen zaitu



Maskararekin etor zaitez; derrigorrezkoa da.



Beste pertsonetik +1,5m segurtasun-tartea mantendu.



Erabili gel hidroalkoholikoaren banagailuak.



Emandako besaulkian eseri eta ez ibili noraezean barrutian zehar.



Langileen gomendioak jarraitu.



Segurtasunagatik, ez dago estalki-zerbitzurik, ezta esku-programarik ere.

# Gozatu eta amets egin ikuskizunarekin

# ERRIBERRI, ELKARREKIN BERRIZ

**PANDEMIAREN  
ONDORIOEK KULTURARA  
HURBILTZEKO ETA  
GOZATZEKO MODUA  
ALDATU DIGUTE.**

**ERRIBERRIKO OIHALA  
2020AN ALTXATZEAK,  
KONFINAMENDUA  
AMAITU ONDOREN,  
MEREZI IZAN ZUEN.**

**KONPAINIEN,  
TEKNIKARIEN, ARTISTEN  
ETA IKUSLEEN  
ERANTZUNAK,  
EZIN HOBEAK ETA  
ZIRRARAGARRIAK, EDIZIO  
BERRIRAKO BIDEA  
MARKATU ZUEN.**

**U**ztailaren 16tik abuztuaren 1era bitartean, Nafarroak arte eszenikoekin eta publikoarekin egingo du topo Erriberriko Jaialdiaren 22. edizioan, antzerkiarekin, musikarekin, dantzarekin eta poesiarekin gozatzeko aukera izango du.

Urtebete baino gehiago igaro da mundu mailako pandemia deklaratu zenetik, denbora horretan eragindako ondorio guztiekin. Ondorio hauek kulturara hurbiltzeko eta gozatzeko modua aldatu digute. Erriberriko oihala 2020an altxatzeak, konfinamendua amaitu ondoren, merezi izan zuen. Konpainien, teknikarien, artisten eta ikusleen erantzunak, ezin hobeak eta zirrargarriak, edizio berrirako bidea markatu zuen.

Guztion artean frogatu ahal izan dugu kultura segurua dela eta, aldi berean, beharrezkoa norbanakoaren eta taldearen osasuna hobetzeko elementu gisa. Beraz, iaz bultzatu gintuen konbentzimendu berarekin ekingo diogu aurtengo edizioari, eta jakin badakigu herri-tarrek eskatzen dutela antzerkiarekin berriro elkartzea besaulki-patitotik. 2021eko edizioa oihala altxatzeko

gogo osoz iritsi da, istorio eta lengoaia artistiko berriek harrapa gaitzaten. Konpainien eta artisten lan ona erakusteko aukera.

*Arimaren bideetatik* goiburua du aurtengo edizioak, eta kalitatezko programa bat eta antzerki nafarraren errepresentazio zabala aurkezten ditu, bai *Testu Poetikoan Zikloan*, bai Egoitza-Laborategian, bai La Cava agertokian, bertako proposamenen aldeko apustua berrituz. Eta gune eszeniko berri bat estreinatuko dugu: Beireko Ezpeleta Jauregia, ohiko beste kokalekuekin bat egiten duena eta Jaialdira jende gehiago hurbiltzeko aukerak areagotzeko balioko duena.

Esku ondu eta landuak, non zomorro txiki eta hauskor batzuk pausatzen eta modu delikatuari jasotzen diren aurtengo ediziaren irudia osatzen dute. Keinu horrek antzerkiaren magiak besarkatzen uztera gonbidatzen gaitu, gure emozioen hegoak altxatzera eta *arimaren bide* horiek elkarrekin ibiltzera.

Erriberriz goza ezazue!

**Rebeca Esnaola Bermejo**  
Kultura eta Kirol Kontseilaria

# ARIMAREN BIDEETATIK

**I**az, Erriberriko Antzerki Jaialdia antolatzen duen lantaldeak eta taldeek ziurgabetasun eta zalantza garai bat igaro genuen jaialdia egin aurretik. Hau gomendatzen nuen: arnasa hartzea, barre egitea eta amets egitea, kulturak arima osatzen eta espiritua sendatzen duela adieraziz.

Gaur egun, egoera luzeegia da.

Edizio honen leloak, *Arimaren bideetatik* izenekoak, jaialditik igaro diren klasikoen mundu espiritualera eramango ditu asko.

Baina antzerkiak bizitzaz ari zaigu, antzerkiak iruditegia elikatzen du, emozioak eta sentsibilitatea pizten ditu, espiritua irekitzen du eta mundua ulertzen laguntzen digu.

Programazio hau ikusleontzat bereziki pentsatua dago. Behin baino gehiagotan esan dut: jaialdia konpainiekin egiten da, baina publikoarentzat da, aurreko edizioetan lagundu gaituenarentzat eta aurten lehen aldiz jaialdira hurbilduko denarentzat. Publikoarentzat, edizio hau antzerki esperientzia bat bizitzeko gonbidapena da, eta hitza gure zentzumenetara iristen den bezala, musikak arima ukitzen digu.

Inor bere artetik zentzumenetara iritsi badaitke, hori Carmen Linares da. Inork ez bezala, García Lorca, Miguel Hernández eta Juan Ramón Jiménez bertsuez baliatzen da *arimaren bidee-*

*tatik* gidatzeko. Berak eta bere *Flamenkozko 40 urteek* irekiko dute jaialdia Cavan.

Kulturak, arte eszenikoek, ez dute merkatuko arauen arabera bakarrik egon behar, arau horiek ikusleak libertimenduaren kontsumitzaile soiltzat hartzen baitituzte.

Antzerki jaialdi batek arriskatu behar du, artelan baten poetika deskubritzen erraztu, ezezagunaren aurrean ustekabea hartu, proposamen berrien aldeko apustua egin, sortzaile berriei beren espazioak eskaini eta isiltasuna hautematen ahalbidetu.

Funtsa horrekin eta lehen aldiz, La Cava La Zaranda bezalako ibilbide luzeko profesional handiei irekiko zaie, baita sormenezeta ausardiaz beteriko ibilbide laburreko artista berriei ere: The Lyrical View nafar gazteak talde gisa aurkeztuko dira eta *Pies en Tierra-Oinak lurlean* lana mustuko dute, gure kantuen, musikaren eta erritmoen ibilbide bat. Jaialdia ixteko bereziki pentsatutako kontzertua.

Hainbeste gauza ukatu dizkigun urte berezi honetan zehar, "honetatik ikasiko dugu... pertsona hobeak aterako gara" esan izan dugu. Aldaketa sakonak nahi ditugula adierazi ere. Asko dira, gehiegi, oraindik denboran dirauten zalantzak.

Bizi dezagun Erriberriko Antzerki Jaialdia erantzunak aurkitzeko, elkarrekin topatzeko esperientzia gisa. Ikus ditzagun emanaldiak hitz egiten digun eta bakardadea eta absentziak bizitzen la-

**ANTZERKI JAIALDI  
BATEK ARRISKATU  
BEHAR DU, ARTELAN  
BATEN POETIKA  
DESKUBRITZEN  
ERRAZTU,  
EZEZAGUNAREN  
AURREAN  
USTEKABEAN HARTU,  
PROPOSAMEN  
BERRIEN ALDEKO  
APUSTUA EGIN,  
SORTZAILE  
BERRIEI BEREN  
ESPAZIOAK ESKAINI  
ETA ISILTASUNA  
HAUTEMATEN  
AHALBIDETU.**

guntzen digun ispilu gisa. Lau hitzetan: aurre egin diezaiogun katarsiari.

Bidean *La pasión de Yerma* topatuko dugu, emearen eta emakumearen bultzada Lola Blascok testu lorriarraren egindako egokitzapenean. Maitasunean eta mamu guztiak menderatzeko borrokan murgilduta dauden bi emakumeren uhartera joango gara Juan Carlos Rubio zuzendari gonbidatuak idatzi eta zuzendu duen *La isla* lanarekin. Eta Iluna konpainiaren *Vencidos* antzezlanak jolasaren gozamina ostu zioten Juanyren ametsetara eramango gaitu.

Jolasa? jolas gaitezen; objektuekin, sinpletasunarekin, oroitzapenen samurtasun eta emozioekin, *Conservando memoria* ikustean.

Memoria? Bai, oroimena aurkituko dugu Andaluziako sustraietan, objektuen sinbolismoan eta gogoeta egitera gonbidatzen gaituen La Zarandaren antzerkiaren poetikan, horiek baitira *La batalla de los ausentes* bere lanaren hikuntzaren bereizgarriak. La Zaranda, 2010eko Antzerki Sari Nazionala, lehen aldiz izango da Erriberri, eta Erriberri izango da azken sorkuntza hau hartuko duen lehen jaialdia, iaz Bogotako Iberoamerikako jaialdian pandemia zela eta estreinatzerik ezin izan ondoren.

*Arimaren bideetatik* gizatiarrerantz egindako bidaia honetan, bi poeta: Federico García Lorca,

*Espejo, capricho escénico* Javier Vianaren lanean, eta León Felipe, Héctor Alteriok *Como hace 3.000 años* proposamenean gogora ekarrita. Inor gutxi bezala jendearen maitasunari, askatasunari eta minari kantatzen jakin duten poeta handietako bi. Eurekin eta euren bertsoekin, eurekin eta musikarekin, eurekin eta azentu ugari antzezleekin, ertze batetik bestera ibiliko gara, erbestera eta hain hurbil eta aldi berean hain urrun dagoen Amerika horretako herrien sentimenduetara.

Bi autore garaikidek nazioarteko dramaturgia proiektatuko digute maitasunaz hitz egiteko –nola ez dugu maitasunaz hitz egingo antzerki-jaialdi batean?–, sortzen duen beldurraz, minaz, plazerraz, saldukeriaz... Dennis Kellyren *Chicas y chicos* eta Raymond Carverren *Principiante*, Juan Cavestanyren bertsoan dira horren adibide. Azken hau, antzerkigintza espainiar garaikideko aktoreen maisurik adierazgarrienak zuzendutako testua, baita 2019ko Antzerki Sari Nazionala ere: Andrés Lima.

Maitasunak, saldukeriak, minak eta gorrotoak tragedietako heroiak munstro bihurtzen dituzte. Botere borrokek, mendekuek eta heriotzak markatuko dute erritmoa jaialdiak hartuko dituen bi tragedia klasikoetan: *Nise, la tragedia de Inés de Castro*, Nao d'amores konpainiarena, eta Shakespeareren *Tito Andrónico*, Teatro del Noctámbulo Méridako Jaialdiarekin elkarlanean ekoiztutakoa.

Lengoaia eszeniko berrien barruan, bi proiektu hibrido: 2019ko Erriberriko Jaialdiaren sorkuntza-egoitzan garatu zen Amico Teatro eta Akronikaren *Tránsitos*, emaitza bikaineko ekoizpena, eta *Beautiful stranger*, La Caja Flotanteren ekoizpena. Nafarroan arte eszenikoak irudiztatzen ari diren bi proiektu.

Tafallan, *¡Por todos los dioses!* bere lanean, Fernando Cayok greziar mitologiako jainkoen eta Valladolideko bere familiaren arteko harreman xelebrea kontatuko digu.

Erriberriko Teobaldoen plazan, jauregiko harrisetatik gertu, Euskal Herriko Txistulari Elkartearen Nafarroako adarrak *1521 kontzertua* mustuko du, espazio irekietan programatutako jaialdiko ekitaldi bakarra.

Erriberriko Antzerki Jaialdiaren euzaugarri izan behar duten ausardia eta proposamen berrien bilaketa horren baitan, Nafarroako taldeentzako Antzerki Ziklo Poetikoa Espainiako dramaturgia garaikideari eskainita egongo da, 1975-2020 bitartean argitaratutako testuekin. Inextremis, Cardo Films, Tdiferencia eta La Cuerda Teatro taldeak aukeratu dira aurtengo ediziorako.

Aukeratutako lau proposamenak Erriberriko Kultur Etxean, Tafallako Centro Cultural Tafalla Kulturgunean eta, lehen aldiz, Beireko Ezpeleta Jauregian programatuko dira.

Aurreko edizioetan bezala, Erriberri Sorkuntza Egoitza hartuko du.

Kultur Etxean Dramaturgia Tailerra egingo da, Juan Carlos Rubiok gidatuta; *La adolescencia creadora*, Haur eta Gazteentzako Dramaturgiaren II. Jardunaldien lana aurkeztuko da, eta María Royoren *Nise, un viaje en la Nao d'amores* dokumentala proiektatuko da. Ondoren, Ana Zamora konpainiako zuzendariarekin eta espainiar antzerki klasikoko antzerkigile nabarmenenarekin topaketa izango da.

Turismo Bulegoko - Ardoaren Museoko patioan, programazioan parte hartzen duten artista eta sorkuntzaile batzuei emango diegu hitza, jaialdian laguntzen diguten kazetariarekin.

## GUTXIENEZ, ERRIBERRIKO ANTZERKI JAIALDIAREN EDIZIO BAKOITZEAN, MANTXAKO ZALDUNAK ESANGO LUKEEN BEZALA, "INORK EZ DIGU SAIATU IZANAREN LORIA KENDUKO".

Bi topaketa, bata Carmen Linaresekin eta bestea Juan Carlos Rubiorekin, TVEko Machús Osinaga eta RNEko Daniel Galindo kazetariak animatuta, eta hirugarren bat, jaialdian lehen aldiz, edizio honetan programatutako Foru Erkidegoko profesionalarekin eta Ana Artajo eta Nerea Alejos kazetariarekin.

Garai berezi hauetan, zilegi bekit 2021eko jaialdiaren irudia Jorge Oteizaren bertso batzuekin lotzea:

*"Nork elikatuko zaitu garaitua izan ez den esku honek atsedean hartzen duen bitartean?  
Nork beteko du esku hau amaitu dezan?  
Nork estutuko, zurea has dadin?"*

Oteiza berriz ere, kulturaz, erresistentzia kulturaz ari denean.

*"Idealismo ideologiko zaharrak darabiltzate oraindik... Ogi berria erosi, baina aurreko egunean sobratu zitzaizena jaten dutenak dira"*

Erriberriko Antzerki Jaialdiko zuzendari artistiko bezala, egunero ogi berria jatea nahi dut, eta Eusebio Calonge aipatuz, *La batalla de los ausentes* lanaren egilea:

*"Ez egin emanaldi bakoitzean irekitzeko kontserba artistikorik. Tentsioari eutsi behar zaio, egoera bakoitzean arriskatu, errealtate eszeniko bakoitza bere bilakaera bizian garatu...!"*

Gutxienez, Erriberriko Antzerki Jaialdiaren edizio bakoitzean, Mantxako zaldunak esango lukeen bezala, "inork ez digu saiatu izanaren loria kenduko".

Luis F. Jiménez  
Erriberriko Antzerki Jaialdiaren  
Zuzendari artistikoa, 2021



## UZTAILAK 16 OSTIRALA

19:00 / TEOBALDOEN PLAZA

### CONCIERTO 1521

EUSKAL HERRIKO TXISTULARI  
ELKARTEA, NAFARROA

Zuzendaria: **Aitor Urquiza**

Estreinaldia Erriberri. Txistuari, instrumentu multzo handi batean bikain integratzen denean duen potentzialtasun osoa erakusteko dimentsio berri bat ematen dion ikuskizuna.

## 20:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA SUPERHOMBRE

Blanca Bardagil  
INEXTREMIS TEATRO

Zuzendaria: **Iratxe García Uriz**

22:00 / LA CAVA

### 40 AÑOS DE FLAMENCO

Carmen Linares  
CARMEN LINARES

*Cantaora* honek, musikaren kondairea biziak, taulen gainean 40 urteak ospatuko ditu Andaluziako folklorean, flamenko musikan eta poesian barrena bidaia eginez. Argiz, samurtasunez, negarrez, oroimenez, kolorez eta egiaz jositako ikuskizun bat.

## UZTAILAK 17 LARUNBATA

13:00 / TURISMO BULEGOA -  
ARDOAREN MUSEOA

### CARMEN LINARESEKIN TOPAKETA

Daniel Galindo eta Machús Osinagarekin

20:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA

### VIAJE A PIE

Julio Villar  
CARDO FILMS

22:00 / LA CAVA

### ESPEJO, CAPRICH ESCÉNICO

Javier Viana, Federico García Lorcaren testuetan oinarrituta  
BUM CREACIONES

Zuzendaria: **Javier Viana**

Lorcaren obraren laborpenetan, esperimentzian, eskutizetan eta hitzaldietan

oinarritutako giza bidaia, bere bizitzia eta lanari darien pasio eta askatasun sortzailetik sortua.

## UZTAILAK 18 IGANDEA

13:00 / TURISMO BULEGOA -  
ARDOAREN MUSEOA

### JUAN CARLOS RUBIOREKIN TOPAKETA

Daniel Galindo eta Machús Osinagarekin

Aurtengo zuzendari gonbidatua solasean ariko da RNE eta TVEko kazetariekin eta publikoarekin.

20:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA

### ADRENALINA, FENILETILAMINA, OXITOCINA Y OTRAS HORMONAS

Juan Carlos Rubio  
TDIFERENCIA

Zuzendaria: **Adriana Olmedo**

22:00 / LA CAVA

### LA ISLA

Egilea eta zuzendaria: **Juan Carlos Rubio**  
HISTRION TEATRO

Juan Carlos Rubio, aurtengo zuzendari gonbidatuak, eta *tour de force* bat den *La isla* Histrion Teatrotzat espreski idatzi eta zuzendu du. Elkarri entzun gabe hitz egiten dion bikotea, eta nahi gabe handitzen den distantzia. Ikuskizun ederra, bizia, mingarria.

## UZTAILAK 19 ASTELEHENA

UZTAILAK 19, 20, 21, 22 ETA 23

17:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA

### ANTZERKIGINTZA TAILERRA

*De la realidad a la ficción*, Juan Carlos Rubioren eskutik.

## UZTAILAK 20 ASTEARTEA

22:00 / LA CAVA

### TRÁNSITOS

AMICO TEATRO

Zuzendaria: **Mercedes Castaño**

Nortasuna bilatzeko bidaia intimoa hau, bere aurreko estiloarekiko bira bat ematea erabakitzen duen konpainia baten ikerketatik sortzen da, sorkuntzari lengoaiara garaikide berrietatik heltzeko.

## UZTAILAK 21 ASTEAZKENA

22:00 / LA CAVA

### CHICAS Y CHICOS

Dennis Kelly  
EL SOL DE YORK

Dirección: **Lucía Miranda**

Emakumei, indarkeria matxistari eta horrek gure seme-alabengan duen eraginari buruzko testu feminista eta barneratzailea, hunkigarria eta gogorra aldi berean. Dennis Kelly (*Utopia* kultuzko telesailaren egilea) multsaridunak idatzi du, eta aurtengo Ojo Crítico saridunak zuzendu du.

## UZTAILAK 22 OSTEGUNA

17:30 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA

### ANTZERKIGINTZA JARDUNALDIAK

*Adolescencia creadora*, La Nave del Teatro Calderón, Cross Border Project eta Los Bárbaros eskutik.

22:00 / LA CAVA

### VENCIDOS

Egilea eta zuzendaria: **Miguel Goikoetxandia**  
ILUNA PRODUCCIONES

Emakume belaunaldi baten istorioa da, ondokoei emanak eta aukerarik gabekoak. Beren familiak aurrera atera behar izan zituzten emakumeak, Gerra Zibilaren lehen egunetan ama galdu zuten Juany bezalakoak.

## UZTAILAK 23 OSTIRALA

20:00 / CENTRO CULTURAL TAFALLA  
KULTURGUNEA

### VACÍO

José Sanchis Sinisterra  
LA CUERDA TEATRO

Zuzendaria: **Eva Redondo**

18:00 / 20:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA

### CONSERVANDO MEMORIA

Egileak eta zuzendariak: **Izaskun Fernández eta Julián Sáenz-López**  
EL PATIO

Egilearen aitona-ameñe egindako omenaldi poetiko eta ederra. Objektuen antzerkiaren eta hitzaren bidez objektu

hauek berarekin gordetzeko nahia publikoarekin partekatzen du.

22:00 / LA CAVA

### COMO HACE 3.000 AÑOS

León Felipe

PRODUCCIONES LASTRA

Dirección: **Héctor Alterio**

Héctor Alterio agertokitara itzuli da León Feliperi bizia emateko, bere heriotzaren 50. urteurrenean, ñabar duraz beteriko ikuskizun goren eta hunkigarri batekin, Jose Luis Merlinen gitarraren laguntzarekin.

## UZTAILAK 24 LARUNBATA

19:00 / BEIREKO EZPELETA JAUREGIA

### VIAJE A PIE

Julio Villar  
CARDO FILMS

20:00 / BEIREKO EZPELETA JAUREGIA

### ADRENALINA, FENILETILAMINA, OXITOCINA Y OTRAS HORMONAS

Juan Carlos Rubio  
TDIFERENCIA

Zuzendaria: **Adriana Olmedo**

20:00 / CENTRO CULTURAL TAFALLA  
KULTURGUNEA

### ¡POR TODOS LOS DIOSES!

Egilea eta zuzendaria: **Fernando Cayo**

Valladolideko familiarekin haurtzarotik eta aitaren pinturarekiko eta literatura mitologikoarekiko zaletasunetik abiatuta, Cayok ibilbide barregarri, kritikoa eta liserikoa bat egiten du greziar mitologiari, bizitzan eta gure munduan zehar.

22:00 / LA CAVA

### LA BATALLA DE LOS AUSENTES

Eusebio Calonge  
LA ZARANDA

Zuzendaria: **Paco de la Zaranda**

Bizitzaren metafora bat borroka bezala, non Zarandako hiru aktore betearaok gudaroste barreiatu baten hondarrak

diren, berrogei urte baino gehiago irauten duen kuartelik gabeko gerra batean.

## UZTAILAK 25 IGANDEA

18:30 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA

### NISE, UN VIAJE EN LA NAO D'AMORES

Zuzendaria: **Maria Royo**

Dokumentala eta solasaldia publikoarekin eta Ana Zamora antzerkigile eta, Nao d'amores konpainiako zuzendari artistikoarekin.

20:00 / CENTRO CULTURAL TAFALLA  
KULTURGUNEA

### SUPERHOMBRE

Blanca Bardagil  
INEXTREMIS TEATRO

Zuzendaria: **Iratxe García Uriz**

22:00 / LA CAVA

### NISE, LA TRAGEDIA DE INÉS DE CASTRO

Jerónimo de Bermúdez  
NAO D'AMORES

Zuzendaria: **Ana Zamora**

Tragedia errenazentista, bikaina eta harigarria da, gobernu txararen eta boterearen erabileraren arazoaren inguruan eraikia. Tradizio hispanolusoko istorio ezagunenetako bat, Inés de Castoren kondaira.

## UZTAILAK 28 ASTEAZKENA

22:00 / LA CAVA

### BEAUTIFUL STRANGER

Ion Iraizoz

LA CAJA FLOTANTE

Zuzendaria: **Ion Iraizoz, Gloria March eta Juan Paños**

*Beautiful stranger*, bainuontzi batean sartzeko urtebetetze ospakizuna da, abesti baten izenburua da, betiko lagun batekin eta neskalagun ohi batekin berriz elkartzea da. Soliloquio dago guztiekin eta elkarriketa dago norberarekin. Vodevila eta zinematografia, magia eta errealitate daude bertan.

## UZTAILAK 29 OSTEGUNA

22:00 / LA CAVA

## TITO ANDRÓNICO

William Shakespeare

TEATRO DEL NOCTÁMBULO

Zuzendaria: **Antonio C. Guijosa**

Hamar urteko gerraren ondoren, Tito Androniko, azkenean, Erromara itzuli da garaile, Tamora erregina goदारekin eta bere hiru semeekin, preso bezala. Indarkeriak zeharkatutako ikuskizuna da, baina pertsonaien gizatasuna haien ekitzen krudeltasuna bezain agerikoa da.

## UZTAILAK 30 OSTIRALA

19:00 / BEIREKO EZPELETA JAUREGIA

### SUPERHOMBRE

Blanca Bardagil  
INEXTREMIS TEATRO

Zuzendaria: **Iratxe García Uriz**

20:00 / BEIREKO EZPELETA JAUREGIA

### VACÍO

José Sanchis Sinisterra  
LA CUERDA TEATRO

Zuzendaria: **Eva Redondo**

20:00 / CENTRO CULTURAL TAFALLA  
KULTURGUNEA

### VIAJE A PIE

Julio Villar  
CARDO FILMS

22:00 / LA CAVA

### LA PASIÓN DE YERMA

Lola Blasco, Federico García Lorcaren *Yerman* oinarrituta  
SEDA PRODUCCIONES

Zuzendaria: **Pepa Gamboa**

Lorcaren klasikoaren ikuspegi garaikide eta askea, non sexu-gatazkak protagonismo handiagoa hartzen duen Yermak ama izateko duen ezintasunaren aurrean.

## UZTAILAK 31 LARUNBATA

20:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA

### VACÍO

José Sanchis Sinisterra  
LA CUERDA TEATRO

Zuzendaria: **Eva Redondo**

20:00 / CENTRO CULTURAL TAFALLA  
KULTURGUNEA

### ADRENALINA, FENILETILAMINA, OXITOCINA Y OTRAS HORMONAS

Juan Carlos Rubio

TDIFERENCIA

Zuzendaria: **Adriana Olmedo**

22:00 / LA CAVA

### PRINCIPIANTES

Raymond Carver. Moldaketa: Javier Juan Cavestany

BEGINNERS 2021 AIE

Zuzendaria: **Andrés Lima**

Arratsalde batean, argi aldakorrek markatutako giro batean, laurak partekatzen dituzte beren bizipenak eta ideiak, handiak eta txikiak, bestearen maitasunak eta beharrik esan nahi duenari buruz.

## ABUZTUAK 1 IGANDEA

ERIBERRI  
EGONALDIAREN AURKEZPENA

### DEVENIRES

LA BANDA TEATRO

13:00 / TURISMO BULEGOA -  
ARDOAREN MUSEOA

### TOPAKETA NAFAR KONPANIIEKIN

Ana Artajo eta Nerea Alejosekin

Jaialdian parte hartzen duten konpainia nafarrak publikoarekin eta bertako hedabideetako bi kultur kazetariekin arituko dira.

22:00 / LA CAVA

### PIES EN TIERRA – OINAK LURREAN

THE LYRICAL VIEW

Zuzendaria: **Saioa Goñi eta Mario Oroz**

Bere osotasunean Nafarroako musikari gazte osatua eta Saioa Goñi soprano buru duen talde talentudun batek musikuko Erriberri ikuskizun eder hau, gure lurraldeko tokirik ederrene-tara musikaren eskutik garamatzana.

A pair of hands is shown from the palms up, holding two small beetles. The background is a dense field of green grass, with several butterflies of various colors (blue, orange, and green) fluttering around. The text 'La Cava' is overlaid in white on the hands.

# La Cava



# 40 AÑOS DE FLAMENCO

CARMEN LINARES

UZTAILAK 16 OSTIRALA  
LA CAVA  
22:00

Carmen Linares, Paco de Lucía, Camarón, Enrique Morente, José Mercé eta Tomatitoren belaunaldikide bakarra, flamenkoan daramatzan 40 urteak ospatzen ari da Andaluziako folklorean, flamenko musikan eta poesian barrena bidaia eginez. Argiz, samurtasunez, negarrez, oroimenez, kolorez eta egiaz jositako ikuskizuna.

Cadizko badien argia, Sevillako tenpluak, Granadako zerua eta Jaengo olibadia. Federico García Lorcaren, Miguel Hernándezen, Valentereen eta Juan Ramón Jiménezzen bertsoen izaera dramatiko eta herrikoa. Carmenek bere ezinbesteko errepertorioa eskaintzen digu, aparteko musikari sorta batekin eta bi dantza-saio *tonák* eta *alegríekin*, bata dandardunarekin.

Carmen Linaresen ahots paregabearen egia, aldi berean harramazkatzen eta laztantzen gaituen *cante* bat. Flamenkoaren kondaira bizia den kantaria eta Espainiako kultura musikala ulertzeko ezinbesteko artista.

## ANTZEZLEAK

Carmen Linares (*cantaora*), Salvador Gutiérrez (gitarra), Eduardo Espín Pacheco (gitarra), Vanesa Aibar (*dantza*), Ana María González (*koroak* eta *txaloak*) eta Rosario Amador (*koroak* eta *txaloak*).

## LANTALDE ARTISTIKOA

**Zuzendaritza musikala:** Carmen Linares / **Ekoizpen exekutiboa:** Miguel Espín Pacheco / **Soinu-teknikaria:** Álvaro Barco / **Argi-teknikaria:** Olga García / **Ikus-entzunezkoen edizioa:** Cabofaro / **Komunikazioa:** Marta Sebastián / **Ekoizpena:** El Mandaito.

Argibide gehiago:  
[www.carmenlinares.net](http://www.carmenlinares.net)

Iraupena: 80'





# ESPEJO, CAPRICH ESCÉNICO

BUM CREACIONES

Zuzendaria: Javier Viana

UZTAILAK 17 LARUNBATA  
LA CAVA  
22:00

Ikuskizun honek Lorca proposatzen du pasio eta askatasun sortzailetik pentsatutako ibilbide berezi batean. Bere bizipenetan, harreman epistolarretan, hitzaldietan eta bere obraren laburpenetan oinarritutako giza bidaia.

Bere irudiaren ikuspegi argitsua musikariaren, antzerki-gizonaren eta hitzen ikertzaile geldigaitzaren sentibilitatetik abiatuta, beti ere bere garrantzi sozialaz jabetuz.

Federikok maisuki landu zituen lengoaien aniztasuna Vianak sortutako dramaturgian islatzen da. Hiru pertsonaiek, ispilu gisa, beren izaera poliedrikoa islatzen dute, berezko nortasuna hartzen duen piano baten ondoan, hitzaren luzapen bat gehiago bailitzan.

Granadako Vegatik Habana argitsura, Madril sortzaile eta New York gordin batetik igarota, hiru ahotsetara bidaia-tuko dugu sorkuntzaren misterioa eta *duendea*, haurtzarora, feminitatea, bere burua deskubritzen eta adierazten duen gizona ezagutzeko.

## ANTZEZLEAK

Nerea Cordero, Javier Viana eta Javier Galiana.

## LANTALDE ARTISTIKOA

**Dramaturgia eta zuzendaritza:**

Javier Viana / **Egilea:** Javier Viana eta Federico García Lorca / **Off-eko ahotsak:** Ales Furundarena, Antonio Leiva eta Ana Ibáñez / **Zuzendaritza musikala:** Javier Galiana /

**Zuzendariaren laguntzailea:** Javier Parra / **Esenografia:** Victoria Jiménez eta José Phelix Olivares "La Mundial Studios" / **Argiztapenaren diseinua:** Sergio Rodríguez / **Soinu-ingeniaria:** Javier Luna / **Argiztapen-teknikaria:** Manuel Castillo / **Tramoia:**

Jose Phelix Olivares eta Pablo Lomba / **Ebakigarrigintza eta diseinua:** Pepe Canela / **Txotxongilogintza eta aholkularitza:** Ángel Calvente eta Maite Serrano / **Jantziak:** BUM Creaciones / **Orrazkerak eta ileordeak:** Nati Kabuki eta Nora Aguirre / **Ikus-entzunezkoak:** Javier Viana, Oscar Martínez eta Pablo Mejlachowicz / **Kartelaren diseinua eta collageak:** Blupaipai / **Webgunearen diseinua:** Pepe Canela / **Ekoizpena biran:** Pablo Lomba / **Argazkiak:** Juanjo Palenzuela eta Pierre Grandidier / **Banaketa eta ekoizpena:** Reyes Revilla Alonso.

*Espejo, capricho escénico*  
BUM Creaciones-en ekoizpen bat da.

Argibide gehiago:

[www.bumcreaciones.com](http://www.bumcreaciones.com)

Iraupena: 80'



UZTAILAK 18 IGANDEA  
**LA CAVA**  
22:00

★ ZUZENDARI GONBIDATUA  
👍 EMANALDI IRISGARRIA

Elkarri entzun gabe hitz egiten dion bikotea, eta nahi gabe handitzen den distantzia. Mugitzen naizen bakoitzean gehiago urruntzen naiz, eta hurbiltzen naizen bakoitzean gehiago mugitzen zara. Denok daukagu paparrean ur gazizko putzu bat haragiz inguratua. Denok burua ateratzen dugu ura lepora iristen zaigunean oihu egiteko.

Juan Carlos Rubio, aurtengo jaialdiaren zuzendari gonbidatua da, eta *tour de force* bat den *La isla* hau Histrión Teatrorentzat espreski idatzi eta zuzendu du.

"Zergatik ikusten duzu beti nik ikusten ez dudana?", galdetzen du pertsonaietako batek. Agian antzokia delako leku liluragarri hori, non gure buruari barkatzen ez diogun guztia, eta erruz, epaiketez edo ametsez mozarrotzen den oro ikustea ahalbidetzen zaigun. Zer gertatzen da oinazeak gainditzen gaituenean eta ihes egin nahi diogunean? Harrapari bihurtzen al gara? Gure izaeraren alderik basatienarekin konektatzen al gara, gu geu garen sen primarioz betetako animalia horrekin? Edozein preziotan biziraun nahi al dugu?

Ikuskizun ederra, bizia, mingarria. Beharrezkoa.



### ANTZEZLEAK

Gema Matarranz eta Marta Megías.

### LANTALDE ARTISTIKOA

**Zuzendaria eta egilea:** Juan Carlos Rubio / **Zuzendariaren laguntzailea:** Luis Miguel Serrano /

**Eszenografiaren diseinua:** La Alegría eta Álvaro Gómez Candela / **Eszenografiaren eraikitzea:** Álvaro Gómez Candela /

**Argiztapenaren diseinua:** Juan Felipe "Tomatierra" / **Soinua:** Ángel Moreno / **Diseinu grafikoa:** Rafa Simón / **Komunikazioa:** Extrema Comunicación / **Argazkiak:**

Gerardo Sanz / **Bideoa:** GueBen.es Estudio Creativo / **Ekoizpena:** Nines Carrascal eta Sonia Espinosa / **Banaketa:** Nines Carrascal (Escena Distribución Granada).

*La isla*  
Histrión Teatro-ren ekoizpen bat da.

Argibide gehiago:  
[www.histrionteatro.es](http://www.histrionteatro.es)

Iraupena: 70'

# LA ISLA

Egilea eta zuzendaria: Juan Carlos Rubio

HISTRIÓN TEATRO



# TRÁNSITOS

AMICO TEATRO

Zuzendaria: Mercedes Castaño

UZTAILAK 20 ASTEARTEA  
LA CAVA  
22:00

Amico Teatro konpainiak jaialdiaren beraren egoitza artistikoetako batean garatutako ikerketa-lanetik sortu zuen nortasuna bilatu nahi duen bidaia intimo hau. Honekin konpainiaren aurreko estiloarekiko bira bat ematea erabaki zuen, lengoia garaikide berrietatik eta sakontasun dramatiko handiagoarekin heltzeko sorkuntzari.

Antzerkiaren, dantzaren edo instalazio artistikoaren arteko mugak nahasten dituen muntaia da. Argian, sensualitatea, feminitatea eta harmonia aztertzen ditu; itzalean, konprometitzen gaituen dualtasuna, kontraesanak eta, basatiak izan daitezkeen gatazkak.

Argilun honen gainean lan baten egitura onirikoa datza, non hauskortasuna eta magia Dora Salazarren lan plastikoak iradokitako sorkuntza batean oinarritzen diren. Minotauroaren irudiak, mugitzen den giza muskulaturaren plastikotasunak eta animaltasuna islatzen duen indarraren esentziak antzinako errituetan murgilduko gaituzte.

## ANTZEZLEAK

Ion Barbarin Lisarri eta Txori García Uriz.

## LANTALDE ARTISTIKOA

**Dramaturgia eta zuzendaritza:** Mercedes Castaño / **Musikagintza eta zuzeneko musika:** Idoia Oteiza (pianoa) e Itziar Etxegia (biolina) / **Eszenografiaren diseinua eta lan plastikoa:** Dora Salazar / **Aholkularitza koreografikoa:** Jon Maya / **Argiztapenaren diseinua:** David Bernués / **Jantziak:** Edurne Ibañez / **Eszenografiaren erakitzea:** Raúl Arraiza / **Argazkiak:** Ander Iribarren / **Bideoa:** Acrónica Producciones / **Ekoizpena:** Amico Teatro eta Acrónica Producciones.

*Tránsitos*  
Amico Teatro eta Acrónica Producciones-en ekoizpen bat da.

2019ko Erriberriko Antzerki Jaialdiaren Egonaldia

Iraupena: 60'



# CHICAS Y CHICOS

Dennis Kelly

EL SOL DE YORK

Zuzendaria: Lucía Miranda



UZTAILAK 21 ASTEAZKENA  
LA CAVA  
22:00

HEMENO ANTZERKIA

Dibertigarria eta ausarta da edozein izan zitekeen emakumea. Senar bat, egun osoa gauzak eraikiten ematen duen alabatxoa eta hauek suntsitzen dituen seme txikiago bat ditu.

Aurre egin die kristalezko sabaiei, helburu ez zuen lan bati, adiskidetzeari, ama txarra sentitzeari eta edozein emakumeren bizitzako porrot eta garaipen txikiei. Baina gauzak ez dira diruditen bezalakoak. Eta horrek dena aldatuko du. Betirako.

Emakumeei, indarkeria matxistari eta horrek gure seme-alabengan duen eraginari buruzko testu feminista eta barneratzailea, hunkigarria eta gogorra aldi berean.

Dennis Kelly (*Utopia* kultuzko telesailaren eta *Mathilda* musikalaren bertsiorekin egilea) multisaridunak idatzi du, eta aurtengo *Ojo Crítico* saria irabazi duen Lucía Mirandak zuzendu du.

Umorez, samurtasunez, minez eta errealtatez beteriko antzezlan honek aurre egiten die gure gizartearen itzaleko batzuei, eta galdera konplexu batzuk egiten dizkio publikoari: barkatzen al dugu emakume batek gizonek baino arrakasta handiagoa izatea? Zein da ordaindu beharreko prezioa? Eta adingabeek, zer paper jokatzeko dute?

## ANTZETZLEAK

Antonia Paso.

## LANTALDE ARTISTIKOA

**Dramaturgia:** Dennis Kelly /  
**Zuzendaria:** Lucía Miranda /  
**Eszenografia:** Anna Tusell / **Soinua:** Irene Maquieira / **Argiztapena:** Pedro Yagué / **Kartelaren diseinua:** Paula Bonet / **Prentsa:** María Díaz / **Argazkiak:** Alejandra Duarte / **Ekoizpena:** Javier Ortiz / **Banaketa:** Crénilo.

*Chicas y chicos*  
El Sol de York-en ekoizpen bat da.

Argibide gehiago:  
[www.elsoldeyork.es](http://www.elsoldeyork.es)

Iraupena: 85'





# VENCIDOS

ILUNA PRODUCCIONES

Dramaturgia eta zuzendaritza: Miguel Goikoetxandia



Erriberriko  
Antzerki  
Jaialdia  
2021

UZTAILAK 22 OSTEGUNA  
**LA CAVA**  
**22:00**

📍 HEMENGO ANTZERKIA

## ANTZEZLEAK

Marta Juaniz, Ana Berrade, David Larrea eta Miguel Goikoetxandia

## LANTALDE ARTISTIKOA

**Dramaturgia eta zuzendaritza:** Miguel Goikoetxandia /  
**Argiztapenaren diseinua eta soinua:** Ion Martinkorena / **Jantziak:** Ion Martinkorena / **Banaketa:** Iluna Producciones eta Sandra Avella (Rovima Producciones Teatrales).

*Vencidos*  
Iluna Producciones-en  
ekoizpen bat da.

Argibide gehiago:  
[www.ilunaproducciones.es](http://www.ilunaproducciones.es)

Iraupena: 70'

*Vencidos* "zilborrik gabeko" emakume belaunaldi baten istorioa da, ondokoei emanak eta aukerarik gabekoak. Beren familiak aurrera atera behar izan zituzten emakumeak, zegokien ogiari uko eginez gertukoek gurina izan zeza-ten. Gatazka-egoeran jaioak. Sustrairik gabe fruitua emateko gai direnak.

Gerra Zibilaren lehen egunetan ama galdu zuen Juany bezalako emakumeak. Une horretatik aurrera, zelaietan zehar ibiltzen da aitarekin, bizirauten saiatzeko. Berea ez den gurdi bati bultzatza eginez, inoiz askatzeko aukerarik gabe. Bere bizitza osoan tiratuko dituen inoren gurdi guztien sinbolo gisa. Estraperloa, erbestea, gosea, atzerri-ratzea, borroka eta erreparazioaren bilaketa.

Istorio txiki asko ordezkatzan dituen istorio txiki bat.

Garaituen horiek.



# COMO HACE 3.000 AÑOS

León Felipe

PRODUCCIONES LASTRA

Zuzendaria: Héctor Alterio



Erriberriko  
Antzerki  
Jaialdia  
2021

UZTAILAK 23 OSTIRALA  
LA CAVA  
22:30

Héctor Alterio agertokietara itzuli da León Feliperi bizia emateko, bere heriotzaren 50. urteurrenean, ñabarduraz beteriko ikuskizun goren eta hunkigarri batekin.

Eszenaren maisu honen proposamen guztiz original bat, non bere esentzia, metrika edo melodiatik harago bilatuz interpretatzen dituen bere poemak.

Aukeratutako erreperitorioak gitarra lagun duen Jose Luis Merliren jatorrizko konposizioen eta Leon Feliperen bertsoen arteko harmonia perfektua irudikatzen du.

Gizakia, borroka, askatasunarekiko maitasuna eta identitatea nagusitzen dira Alterioren desio pertsonal baten gailurra den proiektu honetan. Laurogeita hamar urte baino gehiago ditu eta ikaragarria da oholza gainean poetaren hitzen bidez bere buruaz eta bere erbestez ari denean.

## ANTZEZLEAK

Héctor Alterio eta José Luis Merlín (gitarra).

## LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaria: Héctor Alterio / Egilea: León Felipe / Musika: José Luis Merlín / Ekoizpena: Producciones Lastra.

*Como hace 3.000 años*  
Producciones Lastra-ren  
ekoizpen bat da.

Argibide gehiago:  
[www.hectoralterioymerlin.com](http://www.hectoralterioymerlin.com)

Iraupena: 60'





# LA BATALLA DE LOS AUSENTES

Jerónimo de Bermúdez

LA ZARANDA

Zuzendaria: Paco de la Zaranda



Erriberriko  
Antzerki  
Jaialdia  
2021

UZTAILAK 24 LARUNBATA  
LA CAVA  
22:00

Izan baino gehiago, izan ziren. Inork gogoratzen ez duen gerra batetik bi-ziirik irtendakoak, nahiz eta ez duten amore ematen ahazturaren aurkako borroka bat irabazteko ahalegin hutsalean, liskar haiek –inori interesatzen ez zaizkion efemerideak– handituz.

Bizitzaren metafora bat borroka bezala, non Zarandako hiru aktore beteteranoak gudaroste barreiatu baten hondarrak diren, berrogei urte baino gehiago irauten duen kuartelik gabeko gerra batean.

Bere hizkuntza bandera eraitsi bat da, existentziaren zentzu poetikoa mehatxatzen duen mundu batean. Gure kultur esentzia dirudien alferrikako borroka, kixoteskoa. Epika hiru iruzurgilerentzat, giza-botere ororen satira, duintasuna eta fedea erresistentzia-ekintza gisa hartuta.

Horiek izan ziren beti bere lubakiak. Beti etsituak, inoiz ez garaituak. "Berandu da eta laster ilunduko du" (Lukas, 24:29), eta argi bat piztuta uzten dute ekaitzaren erdian itxaropena munduratzen duen itsasargi bat baillitzan.

## ANTZEZLEAK

Francisco Sánchez, Gaspar Campuzano eta Enrique Bustos.

## LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaria: Paco de la Zaranda / Egilea: Eusebio Calonge / Zuzendariaren laguntzailea: Andrea Delicado / Argiztapena: Eusebio Calonge / Eszenografia: Paco de la Zaranda / Jantziak: Encarnación Sancho / Birako teknikaria: Peggy Bruzual / Soinua: Torsten Weber / Argazkiak eta kartela: Víctor Iglesias / Ekoizpen artistikoa: Eduardo Martínez / Ekoizpen exekutiboa: Sergi Calleja-Focus.

*La batalla de los ausentes*  
Teatre Romea eta La Zaranda, Teatre inestable de ninguna parte-ren ekoizpen bat da.

Argibide gehiago:  
[www.focusdistribucion.es](http://www.focusdistribucion.es) / es / ex / la-batalla-de-los-ausentes

Iraupena: 90'



# NISE LA TRAGEDIA DE INÉS DE CASTRO

Jerónimo Bermúdez

NAO D'AMORES

Zuzendaria: Ana Zamora



Erriberriko  
Antzerki  
Jaialdia  
2021

UZTAILAK 25 IGANDEA  
LA CAVA  
22:00

*Nise Lastimosa* eta *Nise Laureada* antzezetatik abiatuta, Jerónimo Bermúdez fraide, soldadu eta Espainiako Urrezko Mendeko antzerkigile ezagunaren bi antzezetan bakarrik, Nao d'amores, tradizio hispanolusoko istorio ezagunetako batean murgilduko gaitu, Inés de Castroren kondairan.

Presio politiko handiek bultzatzen dute Alonso de Portugal erregea Ines hiltzera, bere seme Don Pedro infantearekin sekretuki ezkondua zegoena. Hiru gortesauk egiten dute hilketaren legala. Don Pedrok, albistea jakin zueanean, burua aldi baterako galdu zuen eta, bere onera etorri zueanean, aitaren aurkako gerrari ekin zion.

Tragedia errenazentista, bikaina eta harrigarria da, gobernu txarraren eta boterearen erabileraren arazoaren inguruan eraikia. Formari dagokionez, Bermúdez bezalako XVI. mendeko humanistek aurre egin behar izan zioten erroinkaren printzipioa eta ereduaren oinarritutako antzerki bat sortzea.



## ANTZEZLEAK

José Luis Alcobendas, Javier Carramiñana, Alba Fresno, José Hernández Pastor, Natalia Huarte, Eduardo Mayo, Alejandro Saá eta Isabel Zamora.

## LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaria: Ana Zamora / Egilea: Jerónimo de Bermúdez / Zuzendaritza musikala: Alicia Lázaro / Bertso-aholkularia: Vicente Fuentes eta Fuentes de la Voz / Jantziak: Deborah Macías (AAPEE) / Eszenografia: Ricardo Vergne / Argiztapena: Miguel Ángel Camacho / Koreografia: Javier García Ávila / Maskara-aholkularia: Fabio Mangolini / Zuzendariaren laguntzailea: Verónica Morejón / Eszenografia- eta jantzi-laguntzailea: Irma Martínez / Jantzigintza: Ángeles Marín eta Maribel Rodríguez / Artisan-ehungintza: La Real Lana / Eszenografiaren eraikitzea: Purple Servicios Creativos / Tresnerigintza: Ricardo Vergne eta Miguel Ángel Infante / Zuzendaritza teknikoa: Fernando Herranz / Prentsa: Josi Cortés / Ekoizpen exekutiboa: Germán H. Solís Banaketa: Nao d'amores.

*Nise, la tragedia de Inés de Castro* Nao d'amores eta Comunidad de Madrid-en ekoizpen bat da, Teatro de La Abadía-rekin elkartanean.

Argibide gehiago:  
[www.naodamores.com](http://www.naodamores.com)

Iraupena: 75'



# BEAUTIFUL STRANGER

Ion Iraizoz

LA CAJA FLOTANTE

Zuzendariak: Gloria March, Ion Iraizoz eta Juan Paños

UZTAILAK 28 ASTEAZKENA  
LA CAVA  
22:00

2019ko maiatzaren 21ean, Ion Iraizozek bere berrogeigarren urtebetetzea ospatu zuen, *40 bete baino lehengo azken asteartea* deitu zion festa-performance bat eginez. Bertan, amak haurdunaldian idatzi eta ordura arte ezkutuan egon zen kontakizun bat irakurri zuen bere aitak.

*Beautiful stranger*, bainuontzi batean sartzeko urtebetetze ospakizuna da, abesti baten izenburua da, betiko lagun batekin eta neskalagun ohi batekin berriz elkartzea da. *Beautiful stranger* honetan solilokioa dago guztiekin eta elkarriketa dago norberarekin. Bertan Vodevila eta zinematografia, magia eta errealitatea daude. Ezinezko ametsak eta aurreikusi ezin diren emaitzak daude. Hausturarik gabeko dolua, sardexka bat zilborrean, izan garen edo izan gintezkeen bestearen bilaketa dago.

Ispiluan, leihoetan, selfie-etan, iraganeko eta etorkizuneko videoetan, parean dugun publikoaren erretinan, behin eta berriz ikusten dugu gure burua. Argi eta garbi islatzen gara. Bitxiak, ederrak, zoragarriak, ezberdinak, xelebreak... gara. Bakoitzean modu batean, baina beti berdina.

Denok gara denak eta inor ez da bakarra.

## ANTZEZLEAK

Ion Iraizoz

## LANTALDE ARTISTIKOA

**Dramaturgia eta zuzendaritza:** Ion Iraizoz, Gloria March eta Juan Paños / **Egilea:** Ion Iraizoz / **Soinua:** José Pablo Polo / **Eszenografia:** Caja Negra Tam / **Bideo-sorkuntza:** Ainara Pardo / **Kanpoko begirada:** Iñigo Rodríguez-Claro / **Ekoizpena:** La Caja Flotante / **Banaketa:** Zeena Producciones / **Kartela:** La Dalia Negra / **Argazkiak:** Iker Lanz.

*Beautiful stranger*  
La Caja Flotante-ren ekoizpen bat da.

Argibide gehiago:  
[www.lacajaflotante.com](http://www.lacajaflotante.com)

Iraupena: 80'





# TITO ANDRÓNICO

William Shakespeare

TEATRO DEL NOCTÁMBULO

Zuzendaria: Antonio C. Guijosa

UZTAILAK 29 OSTEKUNA  
LA CAVA  
21:30

Hamar urteko gerraren ondoren, Tito Androniko, azkenean, Erromara itzuli da garaile, Tamora erregina godoarekin eta bere hiru semeekin, preso bezala.

Titok, errito sakratuek agindu bezala, haietariko nagusia sakrifikatu ondoren, lasaitasuna eta atsedena baino ez du nahi. Borroka gogorragatik eta seme-alaba gehien heriotza goiztiarragatik arima nekatuta duen gizon bat bizi baita jeneral garailearen keinu gogor horren atzean. Haietatik bost baino ez dira bere ondoan, eta, guztien artean, ezin du Laviniarekiko debozioa ezkutatu, Laviniarengan ikusten duelako bere bizitzan zehar itzal izan den indarkeriari ihes egin diezaiokeen etorkizun baten itxaropena.

Bakeak, hala ere, ez du luze iraungo: berehala, Basiano eta Saturninoren arteko azpijoko politikoetan parte hartzera behartua egongo da, bi anaia hauek liskarturik baitaude Inperioaren koroarako duten eskubideagatik. Titok Saturninoren alde emandako botoak zorigaiztoko gertaera-kate bat eragingo du, beti sen unibertsal bezain arrisku batean bilduko dena: mendekua.

Indarkeriak zeharkatutako ikuskizuna da, baina pertsonaien gizatasuna haien ekintzen krudeltasuna bezain agerikoa da.

Erriberriko  
Antzerki  
Jaialdia  
2021

## ANTZEZLEAK

José Vicente Moirón, Alberto Barahona, Carmen Mayordomo, Alberto Lucero, José F. Ramos, Quino Díez, Lucia Fuengallego, Gabriel Moreno, Carlos Silveira eta Guillermo Serrano.

## LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaria: Antonio C. Guijosa / Egilea: William Shakespeare / Bertsioa: Nando López / Musikaren konposaketa: Antoni M. March / Jantzien diseinua: Rafael Garrigós / Argiztapenaren diseinua: Carlos Cremades / Zuzendariaren laguntzailea: Pedro Luis López Bellot / Karakterizazioa eta makillajea: Pepa Casado / Eszenografiaren diseinua: Juan Sebastián Domínguez / Girotea: Mikel / Jantzigintza: Luisi Penco eta Laly Moreno / Eszenografiaren eraikitzea: PROES / Argiztapen-teknikaria: Carlos Cremades eta Mária Conceição / Soinu-teknikaria eta makinista: Javier Torres / Zuzendaritza teknikoa biran: Planta Baja Producciones / Teaserra: Manuel De / Argazkiak: Diego Casillas, Vicente S. Román eta Jero Morales / Diseinu grafikoa: Al Rodríguez / Entrenamendu fisikoak: Diana caro / Makillaje-laguntzailea: Nina Morión / Ekoizpen-laguntzaileak: Álvaro Fernández, Inma Montesinos eta María Escribano / Ekoizpen exekutiboa: Isabel Montesinos / Banaketa: Mara Bonilla.

*Tito Andrónico* Teatro del Noctámbulo eta Meridako 65. Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren ekoizpen bat da.

Argibide gehiago:  
[www.teatrodelnoctambulo.com](http://www.teatrodelnoctambulo.com)

Iraupena: 145'





UZTAILAK 30 OSTIRALA  
**LA CAVA**  
22:00

*La pasión de Yerma* lanean, Lorcak aipatutako gatazketan murgilduko gara berriro. Horrela, desiraren eta moraltasunaren, amatasunaren eta heriotzaren, generoaren eta boterearen arteko tentsioetan murgilduko gara.

Hala ere, oraingo honetan, ikuspegi garaikide eta arras aske libre eskaintzen digun askatasunetik egiten dugu, zuzendariaren hitzetan. Bertan, sexu gatazkak protagonismo handiagoa hartzen du, Yermak ama izateko duen ezintasunaren aurrean.

Gaur egun, amatasuna aurreko mendean bezala ulertu ezin den bezala, klasikoaren bertsio berri honetan tragedia eragin dezaketen pertsonaia batzuen zioak planteatzen dira; izan ere, Andaluziako jenioak bere garaian erakutsi zuen bezala, ohorerik sendoenak ere ezin die grinei eutsi.

**ANTZEZLEAK**

María León, Jorge Monje, Lucía Espín, Mari Paz Sayago eta Diego Garrido.

**LANTALDE ARTISTIKOA**

**Dramaturgia:** Lola Blasco, Federico García Lorcaren *Yerman* oinarrituta / **Zuzendaria:** Pepa Gamboa / **Zuzendariaren laguntzailea:** Paco Pena / **Zuzendariaren asistentea:** Julen Guerrero / **Eszenografiaren diseinua:** Antonio Marín / **Jantziak:** Lupe Valero / **Zuzendaritza musikala:** Rosario La Tremendita / **Ekoizpen musikala:** Rosario La Tremendita eta Pablo Martín Jones / **Mugimendu eszenikoa:** María Cabeza de Vaca / **Argiztapenaren diseinua:** Joaquín Navamuel / **Irudiaren diseinua:** Aida Argüelles / **Erregidorea:** Carlos Dorrego / **Ekoizpen exekutiboa:** Triana Lorite y Lope García / **Ekoizpen zuzendaria:** Carmen Almirante / **Ekoizpen burua:** Hugo López / **Ekoizpen laguntzailea:** Nuria Hernando.

*La pasión de Yerma*  
SEDAren ekoizpen bat da,  
Centro Federico García Lorca,  
Fundación Federico García Lorca  
eta CaixaBanken laguntzarekin.

Argibide gehiago:  
[www.comolaseda.com](http://www.comolaseda.com)

Iraupena: 80'

# LA PASIÓN DE YERMA

Lola Blasco, Federico García Lorcaren *Yerman* oinarrituta

SEDA PRODUCCIONES

Zuzendaria: Pepa Gamboa



# PRINCIPIANTES DE QUÉ HABLAMOS CUANDO HABLAMOS DE AMOR

Raymond Carver (Juan Cavestanyk moldatuta)

VANIA PRODUCCIONES

Zuzendaria: Andrés Lima



Erriberriko  
Antzerki  
Jaialdia  
2021

UZTAILAK 31 LARUNBATA  
LA CAVA  
22:00

Jatorriz 1981. urtean argitaratutako Raymond Carverren kontakizun eza-gunenetako baten antzerkirako egokitzapenaren aurrean gaude.

Hain zuzen ere, maitasunaren gaia du ardatz antzezlanak, sukalde batean hitz egiten duten lau pertsonaiaren bitartez: eskarmentu handiko senar-emazteak eta harreman berriagoa duten bikote gazteagoa. Arratsalde batean, argi aldakorrak markatutako giro batean, laurek partekatzen dituzte beren bizipeanak eta ideiak, handiak eta txikiak, bestearen maitasunak eta beharrak esan nahi duenari buruz. Aldi berean erromantikoa eta urratzailea, errealista eta poetikoa den ikuskizun hau garai bateko erreferentea izateaz gain, funtsezko musika-pieza baten indarrarekin harraipatzen gaitu gaur egun.

Kontakizuna lehen aldiz argitaratu zenean, Carverren editore eta laguna Gordon Lishek erdia moztu zion. 2007an berreskuratu zen jatorrizko bertsoan eta egile amerikarraren beste parte batzuetan oinarritzen da muntaia hau. Proposamenak Carverren unibertso elementu errepikarieretatik murgiltze oso bat izan nahi du: babesleku eta aldi berean arma hilgarriak izan daitezkeen bikote-harremanak, maitasuna eta alkohola; zoriaren aurkako predestinazioa eta esperientzia amerikarraren testura literarioa.

## ANTZEZLEAK

Javier Gutiérrez, Mónica Regueiro, Daniel Pérez Prada eta Vicky Luengo.

## LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaria: Andrés Lima / Egilea: Raymond Carver / **Moldaketa:** Juan Cavestany / **Zuzendariaren laguntzailea:** Laura Ortega Pinillos / **Eszenografiaren eta jantzien diseinua:** Beatriz San Juan / **Argiztapenaren diseinua:** Valentín Álvarez / **Bideo-sorkuntzaren diseinua:** Miquel Àngel Raió / **MUSIKAREN KONPOSAKETA:** Jaume Manresa / **Argazkiak:** Sergio Parra / **Diseinu grafikoa:** Rubén Salgueiros / **Ekoizpen exekutiboa:** Mónica Regueiro eta Carles Roca / **Ekoizpen-zuzendaria:** Ana Guarnizo / **Ekoizpena eta kudeaketa:** Andrea Quevedo.

*Principiantes*  
Beginners 2021 AIE, Producciones Off  
eta ¡Carallada! Show-ren  
ekoizpen bat da.

Argibide gehiago:  
[www.vania.es](http://www.vania.es)

Iraupena: 90'





# PIES EN TIERRA OINAK LURREAN

THE LYRICAL VIEW

Zuzendariak: Saioa Goñi eta Mario Oroz



Erriberriko  
Antzerki  
Jaialdia  
2021

ABUZTUAK 31 IGANDEA  
LA CAVA  
22:00

▶ ESTREINALDIA ERIBERRIN

🎵 HEMENGO MUSIKA

## ANTZEZLEAK

Saioa Goñi, Carolina Luquin, Olaia Lamata, Imanol Resano, Álvaro Blasco, Leire Fernández (1. biolina), Mario Oroz (2. biolina), Daniel Sádaba (biola), Ignacio García (biolontxelo) eta Aingeru Otxotorena (perkusioa).

## LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendariak: Saioa Goñi eta Mario Oroz / Ikus-entzunezkoen ekoizpena eta moldaketa musikalak: Mario Oroz.

*Pies en tierra-Oinak lurrean*  
The Lyrical View-en ekoizpen bat da.

Iraupena: 60'

Bere osotasunean Nafarroako musikari gaztez osatua eta Saioa Goñi sopranoa buru duen talde talentudun batek mustuko du Erriberrin ikuskizun eder hau, gure lurraldeko tokirik ederrenetara musikaren eskutik garamatzana.

*Pies en tierra-Oinak lurrean* lanak, gure tradiziotik edaten duen erreperitorioa aurkezten digu, pieza garrantzitsuenak eta hain ezagunak ez direnak aukeratuz. Bakarleri nagusia zein gonbidatuak abeslari lirikoak dira; beraz, tradizioari begirada harrigarri eta ezberdina ematen diote.

The Lyrical View taldeak ere lan hibrido bat sortzearen aldeko apustua egiten du, publikoaren zentzumen guztiei dei egiten diena eta estetika eszenikoa ederki asko zaintzen duena. Horrela, musikarekin batera ikus-entzunezko proiektioek era poetikoan eta goitik ikusita paisaia ikonikoak erakutsiko dzkigute.

Iraganeko musika-ondarea eta Nafarroako egungo eta etorkizuneko talentu gaztea elkartzeko eta fusionatzeko gune bizigarri batean gaude.





A pair of hands is shown from the palms up, holding several small insects. One beetle is on the left palm, and another is on the right index finger. The background is a dense field of green grass or foliage, with three butterflies (two blue and one orange) flying around. The entire image has a teal-green color overlay.

# Beste espazioak





HEMENGO MUSIKA

## UZTAILAK 16 OSTIRALA ERRIBERRIKO TEOBALDOEN PLAZA 19:00

1521 oso urte garrantzitsua izan zen gure historian. 2021ean bost mende betetzen dira ziren nafar armada Noaingo gudua galdu zuenetik. Musika eta historia eskutik helduta datozkigu, hainbat garaitan zehar Nafarroako parajeetan murgiltzen gaituen ikuskizun zirraragarri batean.

Txistua protagonista nagusia, ezinbestekoa da gure herriko jai eta ekitaldietan. Oraingoan ditu lagun beste tresna eta ahots batzuk, euskaraz eta gaztelaniaz, dimentsio berri eta harri-garriak lortzeko eta instrumentu multzo handi batean bikain integratzen denean duen potentzialtasun osoa erakusteko.

Obra oroigarri eta zirraragarria da, non konposizio musikalak formatu handiko ikus-entzunezko proiektioez jantzen diren.

### ANTZEZLEAK

**Ahotsak:** Maite Itoiz eta John Kelly / **Txistulariak:** Alfonso Iturria, Ainara Martínez, Patxi Rodríguez, Begoña Almirantorena, Arkaitz Ibarra, Garaine Jorajuria, Carlos Peñaranda, Sonia Garralda, Xabier Olazábal, Amaia Eraso, Ainhoa González, Iñaki Flamarique, Izaskun Andueza, Leire Retegi, Igor Martínez, Urtzi Iraizoz, Amaya Domeño eta Ismael Yagüe / **Metalak:** Eneko Azparren, Jesús Soria, Patxi Tardio, Ibai Izquierdo eta Beatriz Díaz / **Pianoa:** Alicia Torrea / **Baxua:** Iñigo Goldaracena / **Perkusioa:** Jaitxo Segura eta Aingeru Otxotorena.

### LANTALDE ARTISTIKOA

**Zuzendaritza musikala:** Aitor Urquiza / **Zuzendaritza eszenikoa:** Xabier Berraondo / **Jatorrizko ideia eta ekoizpena:** Euskal Herriko Txistulari Elkarte. Nafarroa / **Musika-aholkularia:** Alfonso Iturria / **Gidoia eta taularitzea:** Ventura Ruiz / **Koordinazioa:** Aitor Urquiza, Patxi Rodríguez, Alfonso Iturria, Xabier Olazábal, Arkaitz Ibarra, Ainara Martínez, Iñaki Flamarique, Begoña Almirantorena, Carlos Peñaranda, Sonia Garralda, Igor Martínez, Leire Retegi, Garaine Jorajuria (Euskal Herriko Txistulari Elkarte, Nafarroa).

**Concierto 1521** Euskal Herriko Txistulari Elkarte, Nafarroaren ekoizpen bat da

Argibide gehiago: [www.txistulari.eus](http://www.txistulari.eus)

Iraupena: 75'

# CONCIERTO 1521

EUSKAL HERRIKO TXISTULARI ELKARTEA, NAFARROA

Zuzendaria: Aitor Urquiza





HEMENGO ANTZERKIA

**UZTAILAK 23 OSTIRALA**  
**ERRIBERRIKO**  
**KULTUR-ETXEA**  
**18:00 eta 20:00**

Izaskun Fernández egile eta aktorea-  
ren aitona-amonei egindako omenaldi  
poetiko eta ederra. Objektuen an-  
tzerkiaren eta hitzaren bidez objektu  
hauek berarekin gordetzeko nahia pu-  
blikoarekin partekatzen du, memoria  
gordetzeko, ontziratze nahia, haien  
gabezia saihestu ahal izateko.

Bere hitzetan: "Nire aitona-amonen  
oroitzapenak nire bitartez sartu nahi  
ditut, eskuak piperrautsez, azukrez eta  
gatzez zikindu nahi ditut; azaldu nahi  
dut elkarrizketen ondoren konturatu  
nintzela, itxuraz, ez dagoela ezer apar-  
tekorik haien bizitzan, eta hori izan  
zela, hain zuzen ere, apartekoa iruditu  
zitzaidana".

Izan ere, azken batean, zer osagai  
behar ditu bizitzak apartekoa izateko?

**ANTZEZLEAK**

Izaskun Fernández eta Julián  
Sáenz-López.

**LANTALDE ARTISTIKOA**

**Zuzendaria eta egilea:** Izaskun  
Fernández eta Julián Sáenz-López /  
**Diseinu grafikoa:** Diego Solloa /  
**Argazkiak:** Clara Larrea / **Ekoizpena:**  
El Patio Teatro / **Banaketa:** Ikebanah  
Artes Escénicas.

*Conservando memoria*  
El Patio Teatro-ren ekoizpen bat da.

Argibide gehiago:  
[www.ikebanah.es](http://www.ikebanah.es)

Iraupena: 45'

# CONSERVANDO MEMORIA

Egileak eta zuzendariak: Izaskun Fernández eta Julian Saénz-Lopez

EL PATIO





# POR TODOS LOS DIOSES

Egilea eta zuzendaria: Fernando Cayo

FERNANDO CAYO



Erriberriko  
Antzerki  
Jaialdia  
2021

UZTAILAK 24 LARUNBATA  
CENTRO CULTURAL TAFALLA  
KULTURGUNEA  
20:00

Fernando Cayo aktore aldeaniztuna, istorioen kontalaria, juglar berria, ibilbide luzeko zuzendari eta musikaria eta Arte Eszenikoen Akademiako kide fundatzailea datorkigu antzerkia umorearentzako eta hausnarketk partekatzeko leku bilakatzeko asmoz, hori baita bere adierazteko era.

Valladolideko familiarekin izandako haurtzarotik eta aitak pinturarekiko eta literatura mitologikoarekiko zuen zaletasunetik abiatuta, *¡Por todos los dioses!* greziar mitologian, bizitzan eta gaur egungo gure munduan zehar egindako ibilbide barregarri, kritiko eta lisergiko bat da.

Antzineko mitologiaren eta gure eguneroko portaeren zein jainko garaikideen arteko paralelismoz beteriko bidaia etengabea, non, Geni Uñón musikariaren konplizitatearekin, keinuak, hitzaren fisikotasuna, publikoarekiko kontaktu zuzena, groteskoa eta poetikoa, lotsagabeki komikoa dena filosofikoarekin eta garratzarekin elkartzen diren.

## ANTZEZLEAK

Fernando Cayo eta Geni Uñón (perkusioa).

## LANTALDE ARTISTIKOA


**Zuzendaria eta egilea:** Fernando Cayo / **Sortzaile-taldea:** Pep Molina, Jorge Muñoz, Alberto Iglesias, Hernán Gené eta Juan Carlos Rubio / **Argiztapenaren diseinua:** Valentín Álvarez / **Soinuaren diseinua:** Fernando Cayo-Geni Uñón / **Eszenografia eta diseinu grafikoa:** Belén Roldán Gil / **Bideoa:** Bodgan Toma / **Ekoizpena:** Producciones Pachamama / **Banaketa:** Focus.

*¡Por todos los dioses!*  
Producciones Pachamama-ren  
ekoizpen bat da.

Argibide gehiago:  
[www.fernandocayo.com](http://www.fernandocayo.com)

Iraupena: 80'





UZTAILAK 16 OSTIRALA  
**ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA**  
20:00

UZTAILAK 25 IGANDEA  
**CENTRO CULTURAL TAFALLA**  
**KULTURGUNEA**  
20:00

UZTAILAK 30 OSTIRALA  
**BEIREKO EZPELETA JAUREGIA**  
19:00

Umorea garai gris hauei aurre egiteko apustu gisa hartuta, Inextremis Teatrok, hain zuzen ere 2016an jaialdiaren beraren Egonaldi baten inguruan sortu zen konpainiak, Blanca Bardagil antzerkigile eta zuzendari katalanaren komedia-thriller bat aurkeztuko du oraingoan.

Eva oso pozik iritsiko da etxera bere erosketa berriarekin, Peter, gizakia dirudien azken belaunaldiko robota, bere behar guztiak asetzeko asmoz. Eta denak esaten ditugunean, denak dira. Hala ere, Peter ez da dirudiena eta laster Eva eta publikoa esperogabeko amaiera batekin harrizko ditu.

Ikuskizun honek gure pribatutasunaren mugen aurrean jartzen gaitu: agian behar ez ditugun erosotasunen, bakardadearen, desioaren eta maitasunaren truke ordaintzen dugun prezio handiaren parean.

### ANTZEZLEAK

Leire Ruiz eta Txori García Uriz.

### LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaria: Iratxe García Uriz /  
Egilea: Blanca Bardagil.

*Superhombre*  
Inextremis Teatro-ren  
ekoizpen bat da.

Iraupena: 26'



# SUPERHOMBRE

Blanca Bardagil  
INEXTREMIS TEATRO  
Zuzendaria: Iratxe García Uriz



# VIAJE A PIE

Julio Villar

CARDO FILMS

Zuzendaria: Javier Chocarro Bujanda



Erriberriko  
Antzerki  
Jaialdia  
2021

UZTAILAK 17 LARUNBATA  
ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA  
20:00

UZTAILAK 24 LARUNBATA  
BEIREKO EZPELETA JAUREGIA  
19:00

UZTAILAK 30 OSTIRALA  
CENTRO CULTURAL TAFALLA  
KULTURGUNEA  
20:00

Julio Villarrek idazten duen bidaiari izendatu du bere burua. *Viaje a pie* bere liburuan oinarrituta dago lan hau, prosa poetikoan oinarritutako hausnarketa, Donostiatik Tarragonara, hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, oinez egindako bidaia batean bizitako sentazioak oinarri hartuta. Kostunbrismoak, edertasunak eta intimismoak markatutako bizipena.

Ikuskizun honek, Josetxo Goia-Ariben jatorrizko musikaren ekarpena izan du, zeina Mixel Ducau gitarra-jotzailearekin igo da oholtzara, Marta Juanizekin batera, Mediterraneora egindako bidaiari, Mendebaldetik Ekialdera, egile klasikoek argia eta jakinduria sortzen zirela uste zuten tokira.

Zeharkaldi horrek, gainera, gai guztiz garaikideak jorratzen ditu, hala nola landa-eremuko despopulazioa, mundu digitalaren aurrerapenaren aurrean ahozko transmisioa galtzea eta, egungo osasun-krisiarekin batera, esanahi berria hartu duten balioak ere.

HEMENGO ANTZERKIA  
TESTU POETIKOEN ZIKLOA

## ANTZEZLEAK

Marta Juaniz, Josetxo Goia-Arabe (saxo tenorea) eta Mixel Ducau (gitarra).


## LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaria: Javier Chocarro Bujanda / **Ko-zuzendaria:** Josetxo Goia-Arabe / **Egilea:** Julio Villar / **Dramaturgia:** Josetxo Goia-Arabe / **Eszenografia:** Alicia Otaegui / **Jatorrizko Musika:** Josetxo Goia-Arabe.

*Viaje a pie*  
Cardo Producciones-en ekoizpen bat da.

Iraupena: 30'





HEMENGU ANTZERKIA

TESTU POETIKOEN ZIKLOA

**UZTAILAK 18 IGANDEA**  
**ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA**  
**20:00**

**UZTAILAK 24 LARUNBATA**  
**BEIREKO EZPELETA JAUREGIA**  
**20:00**

**UZTAILAK 31 LARUNBATA**  
**CENTRO CULTURAL TAFALLA**  
**KULTURGUNEA**  
**20:00**

Tdiferencia arte eszenikoetan lan egiten duen emakumeen kooperatiba da, eta antzerkiaren eta musikaren ekoizpenean eta banaketan, baita kulturaren kudeaketan ere eskarmentu handikoa. *Testu Poetiko*en Zikloaren deialdi honetarako, Juan Carlos Rubio antzerkigile eta zuzendari gonbidatu ezagunaren testu bat aukeratu du.

Bi emakume bakarrizketa entretengari, mingots eta dinamiko bat ehuntzen joango dira. Haren bidez bidaia bat egingo dugu, zeinean emakumea pertsona bat izaten hasten den eta beste bat izaten amaitzen duen. Ikuskizun horrek gogorarazi nahi digu genero-indarkeria ez dela kasu isolatu bat, baizik eta, tamalez, emakume askok egunero pairatzen duten errealitate lazgarri bat.

Bertan, maingorekin, argia eta itzalarekin, zikina eta garbitasunarekin, egiarekin eta ezkutatzarekin jolasten da. Bi aktoreek benetako emakume bakar bat eraikitzen dute, oroitzapenekin eta etorkizunarekin, amorrua eta umorea dituen eta, izenburuak dioen bezala, hormonak ere.

### ANTZEZLEAK

Ainhoa Ruiz eta Maite Redin.

### LANTALDE ARTISTIKOA

**Zuzendaria:** Maite Redin / **Egilea:** Juan Carlos Rubio / **Eszenografia eta argiztapenaren diseinua:** Maite Redin / **Ekoizpena:** Conchi Redin.

*Adrenalina, feniletilamina, oxitocina y otras hormonas*  
Tdiferencia-ren ekoizpen bat da.

Iraupena: 25'




# ADRENALINA, FENILETILAMINA, OXITOCINA Y OTRAS HORMONAS

Juan Carlos Rubio

TDIFERENCIA

Zuzendaria: Maite Redin





**UZTAILAK 23 OSTIRALA**  
**CENTRO CULTURAL TAFALLA**  
**KULTURGUNEA**  
**20:00**

**UZTAILAK 30 OSTIRALA**  
**ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA**  
**20:00**

**UZTAILAK 31 LARUNBATA**  
**BEIREKO EZPELETA JAUREGIA**  
**20:00**

Sanchis Sinisterrak, Espainiako antzerki garaikidean gehien saritu eta antzeztu den antzerkigileetako batek, forma dramatiko berriak bilatzeko eta ikertzeko asmoz, ezagunetik ateratzeko duen grinak bultzatu du La Cuerda Teatro Vacío eszenaratzera.

"Pertsonaia" batek publikoari hitz egiten dio, hausnarketa eder batean, arina, zuzena eta umorez eta ironiaz betea, antzerki-elementuei, hitzari, espazioari eta honekin dugun harremanari buruz. Egilearen eta antzerkilaritzaren mugen bere bilaketaren adibide argia da. Ikusleekin jolasten du, alegiazkoak eta "pertsonaia" zalantzan jarriz.

Eva Redondo proposamenaren zuzendariak urteak daramatza berarekin Madrilgo Nuevo Teatro Fronterizo delakoan esku esku lanean, eta bai bera eta bai konpainia bat datoz bandera gisa daraman leloarekin: "Gertarazi dezagun ezinezkoa dena".

### ANTZEZLEAK

Maitane Perez y Maider Lekunberri.

### LANTALDE ARTISTIKOA

**Zuzendaria:** Eva Redondo / **Egilea:** José Sanchis Sinisterra / **Soinua, jantziak eta ekoizpena:** La Cuerda Teatro.

*Vacío*  
La Cuerda Teatro-ren  
ekoizpen bat da

Iraupena: 30'



# VACÍO

José Sanchis Sinisterra

LA CUERDA TEATRO

Zuzendaria: Eva Redondo

# 2021eko Egonaldia DEVENIRES

LA BANDA TEATRO CIRCO



Erriberriko  
Antzerki  
Jaialdia  
2021

## ABUZTUAK 1 IGANDEA ERRIBERRI

HEMENGO ANTZERKIA

La Banda Teatro Circo hasieratik dago konprometituta ikasteko eta berritzeko modu batekin, non bapatekotasuna eta lengoaia berrien ikerketa sormen prozesuaren zutabeak diren. Mugimendua hizkuntza unibertsal bihurtzen da, eta horren bidez publikoa hunkitzea bilatzen du.

Gure bizi-ereduari eta gure gizarteak gidatzen duen individualismoari buruzko ikuspegi kritikotik abiatzen den proiektua da *Devenires*.

Antzerki-istorio oso bisual eta poetiko batean islatzen da, tresna narratibo gisa erabiltzen diren zirku-tekniken bidez kontatua.

Bizitzaren metafora ederra, zehazki artistaren bizitzarena eta bere bidean aurkitzen dituen oztopoena. Etengabe soka ahul baten gainean bizitzea, muga berriak aurkituz, kolokan jartzen gaituen, nekatzen, mugitzen eta astintzen gaituen hutsune batetik ibiltzean.

### ANTZEZLEAK

Izaskun Lasarte, Javier Napal (Nano), Garazi Pascual, Martín López Los Arcos, Jorge Cordon.

### LANTALDE ARTISTIKOA

Argiztapenaren diseinua eta teknikaria: Livory Bárbez / Jantzien diseinua: Elias Ángulo / Eszenografia: Tescinor / Diseinu grafikoa eta ikus-entzunezkoak: Kaptura / Akrobazien irakaslea: Javier Gómez / Aire-tekniketan laguntzailea: Maribel Martínez / Zirko-tekniketan erreferentea: Israel Montenegro.

*Devenires*

La Banda Teatro Circo-ren ekoizpen bat da.

Iraupena: 45'





A pair of hands is shown from the palms up, holding a small green beetle. The background is a lush green field of tall grasses or reeds, with several butterflies of various colors (blue, orange, and white) fluttering around. The overall scene is bright and natural, suggesting a connection to nature and the environment.

# Topaketa profesionalak

# ARTISTEKIN ETA PRENTSAREKIN TOPAKETAK

## CARMEN LINARES

UZTAILAK 17 LARUNBATA  
13:00  
TURISMO BULEGOA -  
ARDOAREN MUSEOA  
MACHÚS OSINAGA ETA  
DANIEL GALINDOREKIN

## JUAN CARLOS RUBIO

UZTAILAK 18 IGANDEA  
13:00  
TURISMO BULEGOA -  
ARDOAREN MUSEOA  
MACHÚS OSINAGA ETA  
DANIEL GALINDOREKIN

## NAFAR KONPAINIAK

ABUZTUAK 1 IGANDEA  
13:00  
TURISMO BULEGOA -  
ARDOAREN MUSEOA  
ANA ARTAJO ETA  
NEREA ALEJOSEKIN



MACHÚS OSINAGA



DANIEL GALINDO



NEREA ALEJOS



ANA ARTAJO

Erriberriko Antzerki Jaialdiak aurten programatutako artistekin eta arte eszenikoetan espezializatutako prentsan erreferentzia diren kazetariekin jendaurreko hainbat topaketa antolatu ditu beste behin, publikoari irekiak.



**Machús Osinaga** (RTVEko kazetaria, Arte Eszenikoetan aditua) eta **Daniel Galindo** (La Sala, RNE saioaren zuzendaria) Carmen Linaresekin eta Juan Carlos Rubio aurtengo zuzendari gonbidatuarekin bilduko dira.

Bestalde, **Ana Artajo** (antzerki kritikaria eta antzerkigilea) eta **Nerea Alejos** (Diario de Navarra egunkariko

kazetaria) Erriberriko Antzerki Jaialdian parte hartzen duten konpainia nafarrek bilduko dira.

Artista eta kazetariaren arteko topaketetan aperitibo bat zerbitzatuko da Reyno Gourmeten kortesiaz.

Sarrera libre da lekua bete arte (15 pertsona). Topaketak zuzenean jarraitzerik izango da Jaialdiaren sare sozialen bitartez.

Erriberriko  
Antzerki  
Jaialdia  
2021

## NAO D'AMORES

UZTAILAK 25 IGANDEA  
18:30  
ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA

*Nise, un viaje en la Nao d'amores* dokumental bat da (40'), María Royok zuzendu eta egina. Nao d'Amoresen antzerki-unibertsoan murgiltzen gaitu, bere oinarri artistikoak eta sormen prozesuak erakutsiz *Nise, la tragedia de Inés de Castro* ikuskizunaren bidez.

Proiektzioaren ondoren, Ana Zamora antzerkigile eta konpainiako zuzendari artistikoarekin solasaldia izango da.


Sarrera libre da lekua bete arte.

## HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKIGINTZAREN II. JARDUNALDIAK

UZTAILAK 22 OSTEGUNA  
17:30 - 19:30  
ERRIBERRIKO KULTUR  
ETXEA

Erriberriko Jaialdiak *La adolescencia creadora* izeneko mahai-ingurua hartuko du proiektu hauen inguruan: LA NAVE (Valladolideko Calderón antzokiko gazteentzako arte eszenikoaren programa), Cross Border Project konpainia eta Los Bárbaros. Jarduera hau *Haur eta Gazteentzako Antzerkigintzaren II. Jardunaldien* baitan garatuko da, honako hauek antolatuta: ASSITEJ España, Haur eta Gazteentzako Arte Eszenikoak; TTP, Publiko Guztientzako Antzerki Elkarte Profesional; Te Veo, Haur eta gazteentzako antzerkia; UNIMA Federazioa. Txotxongiolen Nazioarteko Batasuna eta AAT, Antzerki-egileak.

Argibide gehiago: [www.assitej.net](http://www.assitej.net)





## DE LA REALIDAD A LA FICCIÓN



UZTAILAK 19, 20, 21, 22 ETA 23  
17:00 - 21:00  
ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA  
ZUZENDARI GONBIDATUA

Edizio honetako zuzendari gonbidatua den Juan Carlos Rubio antzerkigile, gidoilari eta aktorearen eskutik tailer praktiko honetan parte hartzen dutenek, antzezlan labur bat idatziko dute ikasleek lehen egunean eraman beharko duten egunkari batetik ateratako albiste bat oinarri hartuta. Horretaz gain, ordenagailu pertsonal bat eta denbora izan beharko dute, tailerretik kanpo, antzezlan sortzeko.

Rubioren *La isla* lanaren azterketaz gain, gai praktikoak jorratuko ditu mintegiak, hala nola errealitatearen eta fikzioaren arteko harremana, antzerkiaren dimentsio moral eta soziala, egitura eta trama, generoak, tonua, elkarrizketak, iraupena, testu baten edizioa, publikoa edo lanbidea.

**IZEN-EMATEA** Mintegi honek 15 plaza eskaintzen ditu antzezle profesional, zuzendari eta antzerkigileentzat. Izena eman ahal izango da plazak bete arte.

Horretarako, bidali e-posta bat [programasydifusion@navarra.es](mailto:programasydifusion@navarra.es) helbidera, izena, bi abizen, helbidea, NAN, telefono mugikorra, harremanetarako helbide elektronikoa eta matrikularen zenbatekoa ordaindu izanaren egiaztatzea adieraziz.

Matrikula ordaindu dutenen artean hurrenkera kronologiko zorrotzean emango da izena mintegian.

Ordainketa, 40 eurokoa, banku-transferentzia bidez egin beharko da **ES38 2100 3693 2122 00547110** kontura. Kontu horren titularra Kultura Zuzendaritza Nagusia da, eta kontzeptuan JUAN CARLOS RUBIO TAILERREKO MATRIKULA eta ikastaroa egingo duenaren izen-abizenak adierazi beharko dira.

Uztailaren 18an La Cavan taularatuko den *La isla* ikuskizunerako sarrera eta klaseak barne hartzen ditu prezioak. Mintegian parte hartzen dutenen kontu egongo da Erriberrirako garraioa.

Norbaitek izen-ematea ordaindu badu eta plazak bete badira, matrikularen zenbatekoa itzuliko zaio.



1992tik aktore lanak telebistako gidoiak (*Farmacia de Guardia*; *Pepa y Pepe*; *Colegio Mayor*; *Manos a la obra*; *A las once en casa*; *Adolfo Suárez, el presidente*), zinematografikoak (*El calentito*; *Retorno a Hansala*; *Bon appétit*; *Las heridas del viento* eta *El inconveniente*) eta antzerki-testuak idaztearekin uztartzen ditu.

Bere lehen lana, *Esta noche no estoy para nadie*, 1997an estreinatu zen. Orduetik, Espainian bere jatorrizko lanak ikusi dira: *Las heridas del viento*; *10*; *Humo*; *Arizona*; *Tres*; *100m<sup>2</sup>* (*El inconveniente*); *El manual de la buena esposa*; *El príncipe de Maquiavelo*; *Iba en serio*; *La correspondencia personal de Federico García Lorca*; *Sensible*; *Grandes éxitos*; *La isla*; *Desmontando a Séneca* eta *El mueble*.

Oholtzara eraman dira, halaber, berak egindako moldaketak: *Ocasiones especiales* (Bernard Slade); *Al final de la carretera* (Willy Russell); *Windermere Club* (Oscar Wilde); *Juntos* (Fabio Marra); *El insólito caso de Martín Piché* (Jacques Mougenot) eta *Anfitrión* (Molière).

Alemanian, Suitzan, Perun, Txilen, Puerto Ricon, Venezuelan, Costa Rican, Panaman, Dominikar Errepublikan, Kuban, Mexikon, Uruguain, Argentinan, Estatu Batuetan, Australian, Eslovakian, Grezian, Irlandan, Erresuma Batuan, Portugalen eta Italian antzeztu dituzte bere lanak, eta bederatziz hizkuntzataraz itzuli ere.

Antzerki-zuzendari gisa honako hauek taularatu ditu: *Humo*; *Arizona*; *Tres*; *100m<sup>2</sup>*; *Esta noche no estoy para nadie, el musical*; *Las heridas del viento*; *El príncipe de Maquiavelo*; *Iba en serio*; *La correspondencia personal de Federico García Lorca*; *Sensible*; *Grandes éxitos*; *La isla*; *Desmontando a Séneca*; *El mueble* eta *Anfitrión*.

Beste egile batzuen lanak ere zuzendu ditu: *El pez gordo* (Roger Rueff); *Razas*; *Muñeca de porcelana*; *La culpa* eta *Trigo sucio* (David Mamet); *Ocasiones especiales* (Bernard Slade); *La monja alférez* (Domingo Miras); *Miguel de Molina al desnudo* (Ángel Ruiz); *El secreto de Puente Viejo*, *Páncreas* (Patxo Telleria); *Juntos* (Fabio Marra); *El insólito*

*caso de Martín Piché* (Jacques Mougenot) edo *Llévame hasta el cielo* (Nacho A. Llorente).

Besteak beste, Ciudad de Alcorcón Saria, SGAE Antzerki Saria, Lope de Vega Antzerki Jaialdiaren Ohorezko Aipamena, Lope de Vega Antzerki Saria, El Público de Canal Sur Saria, Andaluziako Kritikaren Saria, Ubedako Antero Guardia Saria, egile onenaren Andaluziako Antzerki Saria, San Javier Antzerki Jaialdiko Sari Berezia edo Lorca sarietan egokitzapen onenaren saria jaso izan ditu.

Goya sarietarako izendatua izan da eta Zilarrezko Biznaga saria irabazi du Malagako Espainiako Zinemaldian. Halaber, Aktore Latinoen Elkarteak ematen duen H.O.L.A. saria jaso du New Yorken eta A.C.E. sarietarako (Entretanimendu Kritikari Elkarteak ematen duena) izendatua izan da. Huelvako Zinemaldian Andaluziako zuzendari onenaren saria eta zuzendari berri onenaren ASECAN saria jaso ditu.

*El inconveniente* filmaren azken gidoia 2020ko Andaluziako Zinemaren Sarietan eta 2020ko Zinema Idazleen Zirkuluaren Sarietan finalista da.

[www.FestivalTeatroOlite.es](http://www.FestivalTeatroOlite.es)

#AntzerkiaErriberri2021 / #KulturaArnastu



Antolatzen dute:



Laguntzen dute:

